

KULTURA DEMOKRATIKOA (2023ko martxoa) Prensa oharra

SARRERA

Lan honen gaia herritarren kultura demokratikoa aztertzea izan da. Landa-lana 2023ko otsailaren 14tik 17ra egin zen.

Pertsonen arteko konfiantza maila, egonkor

Portaera hauek dira gutxien onartzen direnak: *lanera ez joatea gaixotasun baten aitzakian* (% 91k uste dute ezin dela inolaz ere onartu), *delitu bat ikusitakoan ez salatzea* (% 86) eta *ordaindu gabe metroan, autobusean, edo trenetan sartzea* (% 85). Intolerantzia maila zertxobait txikiagoa da beste bi kasuetan: *merkatari edo profesional batekin hitzartzea BEZa ez kobratzea produktu edo zerbitzu batengatik gutxiago ordaintzeko* (% 75) eta *errepidean abiadura muga gainditzea* (% 68). Bilakaerari dagokionez, altu mantendu da lanera ez joateko gaixotasun baten itxurak egitea onartzen ez duten pertsonen ehunekoa. Bestalde, intolerantzia handitu egin da delitu bat ikusitakoan ez salatzeko, garraio publikoan ordaindu gabe sartzeko eta BEZa ez ordaintzeko; eta aldiz, tolerantzia gehiago dago errepidean abiadura muga gainditzeari dagokionean. Azken kasu horretan, agerikoa da gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea; emakume gehienek uste dute onartezina dela errepidean abiadura muga gainditzea (% 75), aldiz, gizonezkoak permisiboagoak dira gai horretan (% 59).

Pertsonen arteko konfiantzari dagokionez, biztanleria nahiko zatituta dago: % 52k uste dute *inoiz ez garela behar bezain zuhurrak izaten besteekiko harremanetan*, eta % 45ek uste dute *konfiantza izan daitekeela jende gehienarengan*. Gai horrek, gutxi gorabehera, joera berari eutsi dio aztertutako epealdi osoan; 2021ean izan ezik, osasun larrialdi garai betean, eta urte horretan bi ehunekoek % 48an bat egin zuten. Gazteenak mesfidatiago agertu dira pertsona helduagoak baino.

Bestalde, herritarrek uste dute euren bizitzaren inguruan erabakitzeke eta kontrolatzeko nolabaiteko tarte badutela (7,5 puntu 10etik). 2015ean eta 2018an hamarretik 6,5 puntukoa zen

Gero eta interes handiagoa politikan

Hamar pertsonatik lauk diote txikiak zirenean etxean asko edo nahikoa hitz egiten zela politikaz (% 40); eta hamarretik seik familiarekin (% 61) eta lagunekin (% 56) politikaz hitz egiten jarraitzen dute. Lankideekin edo ikaskideekin politikaz hitz egiten dutenen ehunekoa %37raino jaisten da. Nolanahi ere, bilakaera positiboa da aztertutako eremu bakoitzean, beraz, badirudi herritarrek gero eta gehiago hitz egiten dutela politikaz beren eguneroko bizitzan.

Politikaz hitz egiteko askatasuna ere gero eta handiagoa dela uste dute biztanleek: % 48k diote libre sentitzen direla mundu guztiarekin politikaz hitz egiteko, eta % 42k pertsona jakin batzuekin bakarrik sentitzen direla libre. Soilik % 9k diote ez direla libre sentitzen ia inorekin politikaz hitz egiteko; 1987tik ehunekorik txikiena.

Politikan interesa agertzen duten pertsonak geroz eta gehiago dira azken aldian; 2010eko hasieran erregistratutako % 20ko gutxienekotik egungo % 42ra igo baita politikan nolabaiteko interesa badutela aitortu dutenak (interesa handia edo nahikoa). Dena den, oraindik ere %58 dira politikan interes gutxi edo batere ez dutela diotenak.

Bestalde, euskal politikaren inguruan agertutako beste zenbait iritzik ere politikarekiko interesa handitzen ari denaren adierazle dira; hots, handitu egin da erreferendumen aldeko iritzia (%75, bost puntu handiagoa) eta herritarren gaitasunarena gobernuak hartzen dituen erabakietan eragiteko (%35, hamabi puntu handiagoa); aldiz, gutxitu egin dira uste dutenak alderdi politiko bakar batek ere ez dituela konponbide benetan berriak eskaintzen (% 63, bederatzita puntu txikiagoa) eta alderdi politiko guztiak berdina direla uste dutenak (% 46, hiru puntu txikiagoa).

Gehienek demokrazia babesten dute, eta Euskadin demokrazia eta giza eskubideen betetze mailarekin pozik daude

Gehienek babesten dute sistema demokratikoa (% 78), baina % 13k uste dute eurentzako ez dagoela alde handirik gobernu mota bat edo bestea izan; iritzi hori zabalduago dago atzerrian jaiotako pertsonen eta 45 urtetik beherakoen artean.

Nolanahi ere, demokraziarekiko (% 64) eta giza eskubideekiko (% 78) poztasuna oso handia da Euskadin, eta goranzko bilakaera argia du. Izan ere, demokraziarekiko poztasuna (% 64) 2002an

hasitako serieko handiena da; urte horretan % 32 baino ez ziren pozik agertu demokraziarekin. Euskadin demokraziarekiko poztasuna Europako herrialdeen batez bestekoa baino handiagoa da (% 57).

Elkarrizketatutako pertsonen ustez demokraziarentzat funtsezko gaietako bat da mundu guztiak bere iritzia askatasunez eman ahal izatea, muturreko iritzia badira ere; 8,5 puntuko garrantziarekin Oitk 10erako eskalan.

Parte hartze handia ekintza politiko-sozialetan, eta baita talde eta elkarteetan ere

Azken urtean, biztanleriaren zati handi batek ekintza politiko edo sozialen batean parte hartu du.

Bilakaera ikusita, gehien hazi diren jarduerak “pasiboagoak” bezala identifikatu daitezkeenak dira: hala nola, eskaera aldarrikatzaile bat sinatzea (% 41ek egin dute azken urtebetean), diruz laguntzea edo dirua biltzea jarduera politiko edo sozial baterako (% 38), edo zenbait produktu boikotatzea edo ez erostea arrazoi politiko, etiko edo ingurumenekoengatik (% 27). Aldiz, izaera “aktiboagoa” dutenak mantendu egin dira, edo zertxobait txikitu; hala nola, manifestazio batean parte hartzea (% 37), greba batean parte hartzea (% 20) edo Interneten eztabaida politikoko foro edo talde batean parte hartzea (% 8).

Zuzenean talde edo elkarteetako kide izateari buruz galdetuta, % 26k adierazi dute baten bateko kide direla, parte hartze maila handiagoarekin edo txikiagoarekin. Ehuneko hori Espainiako estatuko batez bestekoa baino dezente handiagoa da (% 17).

Oro har, handitu egin da talde edo elkarteetako kide direnen portzentajea. Herritarrek gehien parte hartzen duten elkarteak honako hauek dira: gizarte laguntzako edo giza eskubideen inguruko elkarteak (% 21 kide dira, parte hartze handiagoarekin edo txikiagoarekin), kultura edo aisialdiko elkarteak (% 16), kirol taldeak (% 15), sindikatuak (% 13) eta auzo elkarteak (% 12). Bilakaera ikusita, kasu guztietan geroz eta gehiago dira parte hartzen dutenak, kirol taldeetan izan ezik; eta 2010etik jasotako serieko kopururik handiena da egungoa.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.026 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\%$ 3,1ekoa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2023ko otsailaren 14a eta 17a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 9a